



ENUNTZIATU PARENTETIKOAK ETA MODALIZAZIOA EUSKO LEGEBILTZARREKO EUSKARAZKO ESKU-HARTZEETAN

Claudia M. Torralba Rubinos (UPV/EHU)

NONDIK NORAKOAK

01

HELBURUA

02

AURREKARIAK

03

METODOLOGIA

04

EMAITZAK

05

ONDORIOAK

HELBURUA

Euskarazko ahozko diskurtso formalaren funtzionamendua hobeto ezagutzeko urratsak ematea jarraitzea

- **Diskurtso politikoa:**
Eusko Legebiltzarreko esku-hartzeak
- **Estrategia pragmatiko zehatz bat:**
enuntziatu parentetikoak (EPak)
[eta horien bidez bideratutako modalizazioa]



AURREKARIAK

- **Parlamentuko debatea:**

Testuinguru formal oso **arautua, polarizatua** eta **interaktiboa** (Romero, 2018)

Bi hartzaile: aurrez aurre daudenak + herritarrak
(Van Dijk, 2001)

Pasarte argudiatzaileak nagusi: **norberaren posizioa defendatzea + aurkariarena kritikatzeko**

Oso planifikatuta daude (askotan idatzita), baina debatea **elkarlanean eraiki** behar da (Garro, 2008)



AURREKARIAK

- **Modalizazioa:**

Igorleak bere ekoizpenean uzten duen subjektibotasunaren marka

Hizkuntzaren alderdirik pragmatikoena da, eta interakzio komunikatiboari lotuta dago

Modu askotara adieraz daiteke

Lau mota (Bronckart, 1996/2022)

- Deontikoa: arau sozialetan oinarritutako iritziak
- Logikoa: egiatasun-baldintzak
- Apreziatiboa: balorazio subjektiboak
- Pragmatikoa: egiteko gaitasuna, intentzioa eta arrazoiak



AURREKARIAK

- **Enuntziatu parentetikoak:**

Modalizazioarekin estuki lotuta

Azpeitia (2010: 26): «esatariak bere asmoak erdiesteko norentzakoari egiten dizkion keinu eta arrastoak dira, testutik bertatik mezuaren interpretazioa (nora)bidetu eta gidatzeko erabiltzen dituen»

- **Efektu jakin bat sortzea** bilatzen dute (Blakemore, 2005, 2006)
- **Ohikoak dira gaztelaniazko** parlamentuko eskuhartzeetan (Fuentes Rodríguez, 1998)



AURREKARIAK

- **Enuntziatu parentetikoak:**

ta lehen zuei esan dizuet zuen buruak irudikatzeko gazteak zinetenean, ze batzuk hemen orduko pertzepzioak eta grinak, **pasioa ez esateagatik**, galduak izango dituzue dagoeneko.

- Beste enuntziatu batean txertatzen den **enuntziatu osoa**.
- Sintaktikoki, semantikoki eta intonatiboki **independentea**.
- **Etenen artean** agertzen da.
- **Informazio itxuraz espontaneo eta ez-planifikatua, baina garrantzitsua**, ematen du.
- Esataria bikoiztu egiten da.



METODOLOGIA

- **Corpusa**

- 2019-2021 bitarteko 30 esku-hartze (22 elebidun eta 8 elebakar)

- 15 hizlari

- Iraupena, guztira: 5 ordu eta 2 minutu
(laburrenak 2 min 44 s eta luzeenak 28 min 1 s)

- Hitz kopurua, guztira: 48.543 hitz
(EU: 34.551 hitz eta ES: 13.992 hitz)



METODOLOGIA

- **Analisirako prozedura**

Transkribapen erdiautomatikoak (Elhuyarren ADITU)

Eskuzko azterketa kuantitatiboa

Identifikatutako enuntziatu parentetikoaren bidez adierazitako modalizazio motaren azterketa kualitatiboa

Modalizazio moten araberrako kuantifikazioa



EMAITZAK



Enuntziatu parentetikoak guztira	Euskarazkoak	Gaztelaniazkoak
239 (% 100)	195 (% 81,93)	43 (% 18,07)

Modalizazio mota	Kopurua
Modalizazio deontikoa	13
Modalizazio logikoa	59
Modalizazio apreziatiboa	144
Modalizazio pragmatikoa	84
Guztira	300

ONDORIOAK

- EPak **ohikoak** dira euskarazko parlamentuko debateetan.
- EPek **kokaleku bikaina** eskaintzen dute **modalizazio** mota ezberdinak bideratzeko.
- **Mdalizazioaren mugak identifikatzen** laguntzen dute.
- **EP guztiak bideratzen dute modalizazioen bat edo gehiago.**
 - Interakzio komunikatiboaren adierazle dira
 - Interpretazioa bideratzen dute
 - Espontaneotasuna ematen diote diskurtsoari eta ahozkotasanaren adierazle pragmatiko dira.
- **Modalizazio pragmatikoak** gailentzen dira.



ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Azpeitia, Agurtzane (2010). Enuntziatu parentetikoak: Koldo Mitxelenaren intentzio ironikoaren ispilu. *Gogoa*, 10(1&2), 21-54.

Blakemore, Diane. (2005). And-parentheticals. *Journal of Pragmatics*, 37, 1165-1181.

Blakemore, Diane (2006). Divisions of labour: The analysis of parentheticals. *Lingua*, 116, 1670-1687.

Bronckart, Jean-Paul (1996). *Activité langagière, textes et discours*. Delachaux et Niestlé. [Bigarren edizioa: Bronckart, Jean-Pierre (2022). *Activité langagière, textes et discours*. Lambert-Lucas.]

Garro, Eneritz (2008). Diskurtso erreferituaren erabilera jendaurreko debateetan. *Gogoa*, 8(1), 26-61.

Romero, Alejandro (2018). El humor en el discurso parlamentario: análisis pragmalingüístico de los debates de la Asamblea de Madrid. Doktore-tesia. Madrilgo Konplutentse Unibertsitatea. Docta complutense. <https://docta.ucm.es/entities/publication/a7d39395-9fb6-4a67-b194-e6d61849fb82>

Van Dijk, Teun Adrianus (2001). Texto y contexto de los debates parlamentarios. *Tonos Digital*, 2, 1-35.

ESKERRIK ASKO!

Zalantzarik?

claudiamaria.torralba@ehu.es

